

KANALAK

Gure produktua saltzeko, ezinbesteko ikusten dugu gure bezeroekin aurrez aurre hitz egitea, ondo ezagutu behar gaituztelako konfiantza hartzeko. Guk hasieran bulego bat izango dugu UGGASA enpresan baina guztia aurrez aurre saiatuko gara egiten. Webgunean gure datuak ipiniko ditugu eta gurekin kontaktuan jarri ahalko dira.

Gure produktua saltzeko, atari guztietara joango gara beraien iritzia jakin ahal izateko, eta ea gustatuko litzaieken kontsignak edukitzea jakiteko. Horrela, harreman pertsonal bat edukiko dugu eta konfiantza gehiago irabaziko dute gurekiko. Honekin batera, gurekiko iritzi ona edukiko dute eta jende gehiago interesatuko da kontsigna bat edukitzeaz.



E.E.

Enpresa handitzen joaten bada, bulego bat irekiko dugu bezeroekin hitz egiteko eta akordio batera iristeko. Era berean, enpresa handitzean webgunean erosi ahalko da mundu osoan zehar eta tekniko bat kontratatuko dugu etxetara joango dena gure kontsignak instalatzera.

Guk geuk instalatu egingo dugu kontsigna; gu geu joango gara instalatzera eta bezeroek oso ondo instalatua eta konfiguratua aurkituko dute; erabiltzeko prest. Konfiguratzeko jakintza nahikoa dugu eta laguntzarik behar badugu, gure lagun bati esango diogu elektronikan oso trebea dena.

Produktua garraiatzeko, Aimarrek duen furgoneta batean sartu eta gure bezeroengana joango gara. Honi esker, garraioaren kostu bakarra gasolina izango da eta horrela diru asko aurreztuko dugu. Produktu asko bidali behar baditugu, garraio enpresa bat kontratatzea pentsatu dugu, beste garraibiderik guk ez dugulako.



Bezeroarekin harremanetan jarraitzea pentsatu dugu, arazoren bat egonez gero, inongo kosturik gabe konpondu ahal izateko. Honekin batera, gure helburua bezeroak pozik gelditzea da eta beraien paketeria arazoak desagertzea erosotasunez.